

Aitor Hernandez:

“Aurrerantzean ziklo-kroseean aritzeko asmoa dut”

Ermuarra. 28 urte. Azken 5 denboraldiak Euskaltel-Euskadi txirrindulari taldean eman ostean, abenduaren 31ean amaitu zitzaion bi alderdiak lotzen zituen kontratua eta geroztik talde bila dabil. Zorte-rik ez du izan momentuz eta ondorioz ziklo-krosera itzuli da. 20 lasterketa korritu ditu. Bizkaiko Txapelketa, Zeberio eta Itsason-doko lasterketak irabazteaz gain, Euskadiko Azpi-txapelketan eta Espainiako Txapelketan 10.postuan amaitzea lortu du.

- Noiz jakin zenuen kontratua abenduan amaitzen zitzaizula?

Burgosko itzulian izan zen, uztaillean.

- Espero al zenuen hala-rik?

Denboraldia ondo hasi nuen baina martxoan belau-neko arazoa medio, korritu gabe zenbait hilabete pasa behar izan nituen. Ez zen gaitza sendatzen eta ekai-nean jabetu nintzen taldeak ere ez zuela nigan larregi si-nesten. Azken hilabeteak oso arraroak izan ziren.

- Kolpe gogorra izan zen?

Bai, gogorra izan zen. Txikitatik honetan aritzen zara, hainbeste ordu, horrenbeste entrenamen-du... baina bizitza zorionez aurrera doa.



- Nola laburtzen dituzu bost urte hauek?

Pozik nago egindakoare-kin. Frantziako Tour-ean egon naiz, Giroan, Espainia-ko itzulian, klasika mordo batean ere bai. Nire lana talde-lana izan da beti eta ez naiz damutzen gazte nintzela egindako aukerarekin.

- Orain ziklo-kroseean ari zara buru-belarri ...

Irailean talde bila hasi ginen baina momentuz ez dut zorte-rik izan. Lagunek ziklo-kroseean aritzeko animatu ninduten eta hala hasi nintzen. Alberto Lasueni bizikleta pare bat eskatu eta Villarcayoko frogan hartu nuen parte.

- Geroztik 20 lasterketan hartu duzu parte...

Orbea enpresaren lagun-tza ere izan nuen eta bere bizikleta berri batzuk utzi zizkidaten. Nire koadrilako-ak ere lasterketa guztietara etortzen hasi ziren eta emaitzek ere lagundu dida-te. Hoge lasterketa korritu ditut eta Bizkaiko Txapelketa irabazteaz gain, Euskadiko Azpi-txapelketan eta Espainiako Txapelketan 10. postuan amaitzea lortu dut.

- Jende askok lagundu dizu?

Hemendik nire eskerrik beroenak beraiei eskaini nahi dizkiet. Haiek gabe ez

naiz ezer. Izen denak ezin dira jarri baina Zigor Ceballos, Txurruka eta Libe nire emaztea ezin ditut aipatu gabe utzi. Gainerakoei ere, benetan mila esker!

- Aurrera begira, zein asmo duzu?

Ziklo-kroseean aritzeko asmoa dut. Errepideko txirrindularitzak ere ez ditu bere garai onenak bizi. Talde asko desagertzen ari da eta ez dago denentzako lekurik. Errepidean aritzeko aukerarik etortzen ez bada, udaberrian entrena-tu eta udazkenean ziklo-krosee denboraldiari ekin go diot.

Asier Ibaibarriaga



**CITROËN
AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta 3 L8 pab.
Tel. eta Faxa. 943 17 04 14

**solozabal
tabakoak**



torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



**Eskaintza
handiak
pueri-
kulturan**

**DULCE
BEBÉ
PEQUE'S**

Zubiaurre 30 · ERMUA
943 170 005